

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizen enpresa txikiak sortu, berritu eta lehiakortasuna sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdiko "enpresak sortzea" atalari dagokion ebazpena jakinaraztea (2016ko maiatzaren 9ko ALHAOn argitaratua, 52. zk)

Iragarki honen bidez Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak 2016ko urriaren 20an emandako ebazpena jakinarazten zaie interesdunei, deialdia arautzen duten oinarrien 14.5 klausulan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.6 artikuluan, eta udalaren Kontu-hartzailetza Nagusiak 2016ko martxoaren 8an emandako zuzentarauan ezarritakoarekin bat. Hauxe da ebazpena:

2016ko apirilaren 22an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak enpresak sortu, berritu eta lehiakortasuna sustatzeko laguntza programako oinarriak eta deialdi publikoa (2016ko apirilaren 8ko eta 13ko ALHAO, 52 eta 54. zk); 118.978,00 euroko zuzkiduraz enpresak berritu eta lehiakortasuna hobetzeko, 2016ko udal aurrekontuetako 0821.4331.489.67 partidaren kontura, eta enpresak sortzen laguntzeko 70.000,00 euroko zuzkiduraz (0821.4331.489.67 partidaren kontura).

Eskabideak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 15ean amaitu zelarik, udalaren Enpresa Zerbitzuko teknikariek enpresak sortzeko laguntzen atalean berrogeita hamazortzi (58) eskabide aurkeztu direla jakinarazi dute, 2016ko urriaren 18ko idazkia tarteko, eta horietatik hogeita hamar (30) eskabidek ez dituztela baldintzak betetzen. Hortaz gainerakoak barematu dira.

Eskabideak aztertuta, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2016ko urriaren 19an egindako bilkuran aztertu eta eztabaidatu ziren. Denek deialdiaren betekizunak betetzen zituztela eta baremazioa egiaztatu ondoren, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari. Ebazpenean hogeita zortzi (28) eskabideri eskatutako laguntzak eta dagozkion diru-hornidurak ematea eta hogeita hamar (30) eskabideri deialdiko baldintzak ez betetzeagatik laguntzak ukatzea proposatzen zen.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebaztea.

Adierazitakoarekin bat etorriz, udal aurrekontuetan kreditu-zuzkidura nahikoa egonik, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena ikusirik eta eskumenak eskuordetzeko 2015eko martxoaren 6ko erabakia kontuan izanik, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatuta, enpresa sortzeko modalitateko laguntzak ukatzea honakoei:

Enpresa	Arrazoia
Academia de Música y Actuación Ibaiondo SC	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
Aguawasser SL	4. eta 5. oinarriak: Gutxieneko inbertsiorik ez, ezta gutxieneko puntuaziorik ere
Aldai Agirretxe, Pablo	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
Arroyo Arquitectura & Interior SL	4. eta 5. oinarriak: Gutxieneko inbertsiorik ez, ezta gutxieneko puntuaziorik ere
Chen, Wang Jun	2. oinarria: JEZ ez da diruz laguntzen
Dental Hodeia SL	2. oinarria: EJZren alta gabe
Don Capurso SL	2. oinarria: JEZ ez da diruz laguntzen
Fernández de Liger Inchaurregui, Héctor	5. oinarria: Gutxieneko puntuaziorik ez
Gamarra Asesores de Seguros SL	4. eta 5. oinarriak: Gutxieneko inbertsiorik ez, ezta gutxieneko puntuaziorik ere
García Rasines, Sonia	2. oinarria: JEZ ez da diruz laguntzen
Gasteiz Hoy SC	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
González del Pecho, Jorge	4. eta 5. oinarriak: Gutxieneko inbertsiorik ez, ezta gutxieneko puntuaziorik ere
Goxaki SC	2. oinarria: EJZren alta gabe
Kastner, Katharina	5. oinarria: Gutxieneko puntuaziorik ez
Kultur Soleil S. Koop. Peq.	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
Lazcoz Baigorri, Francisco Javier	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
Martín Muvilla, Mikel	5. oinarria: Gutxieneko puntuaziorik ez
Niso Bouzo, Amaia	2. oinarria: JEZ ez da diruz laguntzen
Ogimamia Gasteiz SL	2. oinarria: JEZ ez da diruz laguntzen
Open K2 SL	2. oinarria: Baldintzak betetzen ez dituen enpresak parte hartzen du
Parafarmacia Virtual XXI SL	5. oinarria: Gutxieneko puntuaziorik ez
Quibu Network SLU	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
Rodríguez López, M ^a Cruz	5. oinarria: Gutxieneko puntuaziorik ez
Santos Vicuña, Asier	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
Speedpack Norte SLU.	2. oinarria Baldintzak betetzen ez dituen enpresak parte hartzen du
Subcon Portal Online SL	2. oinarria: Baldintzak betetzen ez dituen enpresak parte hartzen du
Todoaraba SL	4. oinarria: Gutxieneko inbertsiorik ez
Txikipiki SLU	2. eta 4. oinarriak: IAE no subvencionable y no inversión mínima
Ultramarinos Vasco Latina SC	2. oinarria: JEZ ez da diruz laguntzen
Yurrebaso Macho SC	2. oinarria: Ez du merkataritza-jarduerarik

Bigarrena. Deialdiko baldintzak betetzen dituztela eta proiektuak bosgarren orrian ezarritako gutxieneko 50 puntuak lortuta, enpresak sortzeko laguntzak ematea jarraian adierazten diren eskatzaileei, egindako balorazioari jarraiki, diru laguntza jaso dezaketen arloetan Gasteizen enpresa-proiektu bat abian jartzeko egin eta egiaztatutako inbertsioengatik.

Enpresa	Puntuazioa						Diru laguntza jaso dezakeen inbertsioa	Ehunekoak	Proposatutako diru-laguntza
	5-II oinarriko irizpidea					Guz-tira			
	1	2	3	4	5				
Aposbuc SL	25	15	17	15	10	82	15.454,89 euro	40	6.181,96 euro
Clínica Ethermal SLU	20	17	18	20	5	80	23.299,59 euro	38,75	8.000,00 euro
Egon Enginnering SLU	15	15	18	20	10	78	21.667,89 euro	37,5	8.000,00 euro
Bellanco Hurtado, Jorge	20	15	15	19	5	74	19.380,28 euro	35	6.783,10 euro
Talde Gune Musika Eskola SL	20	10	17	17	10	74	17.763,22 euro	35	6.217,13 euro
Sáez De Buruaga, Amaia25	25	20	16	6	5	72	6.077,00 euro	33,75	2.050,99 euro
Oboid SL	20	15	17	10	10	72	10.418,44 euro	33,75	3.516,22 euro
Transfer Digital SL	25	15	12	14	5	71	13.958,37 euro	33,125	4.623,71 euro
Avant Music Center SC	20	15	17	8	10	70	8.262,52 euro	32,5	2.685,32 euro
Guerrero Ramos, Alicia	23	15	16	11	5	70	11.672,02 euro	32,5	3.793,41 euro
Vigalondo Ochoa de Chinchetru, Joseba Andoni	21	15	14	15	5	70	15.086,27 euro	32,5	4.903,04 euro
Fisioterapia Hegoa SC	25	13	15	7	10	70	7.588,35 euro	32,5	2.466,21 euro
Recubrimiento y Lacados Técnicos SL	15	10	17	16	10	68	16.422,67 euro	31,25	5.132,08 euro
Montajes KMG SL	20	17	10	11	10	68	11.732,78 euro	31,25	3.666,49 euro
Crhye Selección, Desarrollo y Estrategia de RRHH SL	20	12	17	8	10	67	8.413,58 euro	30,625	2.576,66 euro
Icarus Plm Projects & Services SC	17	13	15	12	10	67	12.286,00 euro	30,625	3.762,59 euro
Reflex Car SL	20	12	11	14	10	67	13.928,20 euro	30,625	4.265,51 euro
Gorosabel & Urcelay Inversiones SL	22	16	18	5	5	66	5.171,62 euro	30	1.551,49 euro
Revilla Seco, Sara	25	15	15	5	5	65	5.010,00 euro	29,375	1.471,69 euro
Senda 15 Coworking SL	25	10	18	7	5	65	6.994,40 euro	29,375	2.054,61 euro
Monterroso Sánchez, Jesús María	20	12	14	13	5	64	12.963,08 euro	28,75	3.726,89 euro
Díaz Izquierdo, Jordi	21	13	16	5	5	60	5.408,03 euro	26,25	1.419,61 euro
Metxa Aceleradora de Proyectos SL	25	10	5	9	10	59	9.270,06 euro	25,625	2.375,45 euro
Gestalde Asesoría y Gestoría SLP	20	12	15	7	5	59	7.104,48 euro	25,625	1.820,52 euro
Irtenbide Gasteiz SL	12	13	15	8	10	58	8.217,77 euro	25	2.054,44 euro
Dirvari, Alexandru	10	10	12	12	10	54	12.773,00 euro	22,5	2.873,93 euro
Avanza Gasteiz Consultoría Empresarial SL	15	10	9	8	10	52	8.734,26 euro	21,25	1.856,03 euro
Irean Gestión SL	5	5	10	20	10	50	31.239,38 euro	20	6.247,88 euro
							346.298,15 euro		106.076,96 euro

Hirugarrena. Enpresak sustatzeko udal zerbitzuko teknikariak izendatzea diruz lagundutako enpresa-proiektu horien tutoretza eta jarraipenaren erantzule.

Laugarrena. Diru-laguntza horien zenbatekoa ezartzea, enpresak sortzeko laguntza deialdiko 106.076,96 kopuruan, 2016rako onartutako udal aurrekontuko 0821.4331.486.67 partidaren kontura, eta onuradunei ordaintzea, deialdiko zazpigarren oinarrian ezarritakoari jarraiki.

Bosgarrena. Diru-laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaio.

Seigarrena. Erabaki hau udalaren web-orrian eta ALHAOn argitaratzea.

Interesdunei erabakiaren berri ematen zaie. eta orobat jakinaraztea ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 26an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI